



Esp. kodea: 2023EDLK0008

Titularra: EUSKARA ETA HEZKUNTZA
BATZORDEA

Gaia: Euskararen Eguneko on-line lehiaketa

Hasiera data: 2023/11/22

1.- ZER DA?

Aramaioko Udalak Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu nahi du, eta horretarako, on-line lehiaketa bat antolatuko du besteak beste.

Lehiaketa honetan parte hartzeko, nahikoa da egunero *Aramaixo bizi* whatsapp kanalaren bidez zabalduko diren galderari erantzutea. Galderak Googleforms bidez egin eta erantzungo dira.

Azaroaren 27tik 30era bi galdera partekatuko dira: galdera bat euskara edo oro har hizkuntzei buruzko izango da, eta bestea, Common voice eta Gaitu kanpainari buruzkoa. Galdera bakoitzak lau erantzun posible izango ditu, eta horietako bakarra izango da zuzena.

2.- HELBURUA

Ekimen honen helburua da hizkuntza gutxituei eta euskarari buruzko ezagutza eta jakin-mina handitzea, bai eta Gaitu kanpainarekin bat egin eta partaidetza bultzatzea ere.

3.- DATAK

Azaroaren 27 (astelehena) Azaroaren 30era (osteguna).

4.- PARTAIDEAK

Hala nahi duten guztiek har dezakete parte.

5.- SARIAK

2 sari banatuko dira:

- Euskara eta hizkuntzak: galdera gehien asmatu dituztenen artean Errigorako saski bat zozkatuko da.
- Common voice eta Gaitu kanpaina: galdera gehien asmatu dituztenen artean hari gabeko aurikular pareta.

6.- DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erreglamenduak (GDPR) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, zera jakinarazten dizugu: emandako datu pertsonalak Gorbeialdeko kuadrillako Gorbeialdean behin leihaketarako bakarrik erabiliko direla. Datu horiek isilpekoak izango dira. Datu horiek ez zaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Gorbeialdeko Kuadrillan. Udaletxe Plaza 1-1º P.K. 01130 Murgia (Araba).